

1- IKUSI AURRETIK

1.1 Ze sekretu?

Bideoaren izenburua *Ping-pongaren sekretuak* da. Zer uste duzu gertatuko dela Josu eta Amaiaren artean?



- Amaiak ping-pongaren jolasten erakutsiko dio Josuri.
- Josuk erakutsiko dio Amaiari nola jolastu ping-pongaren.
- Jolastu bitartean sekretuak kontatuko dizkiote batak besteari.
- Beste zerbaite gertatuko da:

  Komentatu zure erantzuna lagun batekin. Bideoa ikustean jakingo duzue nork asmatu duen.

1.2 Esamoldeak

Ikusiko duzun bideoan Amaiak eta Josuk erabili dituzten lau esamolde ekarri ditugu hona. Jarri nor bere lekuan:

Kaka zaharra

Bai, noski

Barkatu

Lasai

1

-Ez dakit nola demontre jartzen den martxan traste hau.

_____ , azkenean, teknikoari deitu beharko diot.



- _____ , nik lagunduko dizut.



2

- _____ , zurea al da aterkia?

- _____ , ahaztu egin zait, hau burua!

  Komentatu zure aukerak lagun batekin. Esamolde guztien esanahia dakizu? Apuntatu zure koadernoan ikasi dituzun formula berriak.

 [Idatzi orain antzeko elkarrizketa labur bat ikasi duzun esamolde bakoitza erabiliz.](#)

2- IKUSI BITARTEAN

2.1 Erantzun egokia aukeratu

[Ikusi arretaz bideoaren lehen zatia eta aukeratu erantzun zuzena:](#)

1.- Amaia eta Josu ping-pongaren ari dira eta...

- a.- igualtsu ari dira jolasten biak.
- b.- haserretu egingo dira, erraz irabaziko duelako Amaiak.
- c.- Amaiari kosta egingo zaio tantoak egitea.

2.- Zer esan dio Josuk Amaiari?

- a.- entrenatu egin behar duela.
- b.- onena dela.
- c.- aspergarria dela.

3.- Josu(k) eta Lide(k)...

- a.- bikote ziren lehen, baina orain ez.
- b.- bikote izaten jarraitzen dute.
- c.- askotan jolasten dira ping-pongaren.

4.- Amaiak...

- a.- sorpresaz hartu du Josuk eta Lidek elkarrekin jarraitzea.
- b.- bazekien Josu eta Lide elkarrekin zeudela.
- c.- Lideri ping-pongaren irabaziko diola esan du Josuk.



  [Komentatu zure aukerak lagun batekin.](#)

2.2. Hutsuneak bete

  [Bideoaren bigarren zatia ikusi bitartean, testuko hutsuneak bete adizki egokia jarritz:](#)

- JOSU.**— Oslon jarraitzen _____, baina bueno, etortzen _____ tarteka.
- AMAIA.**— Pozten _____.
- JOSU.**— Bai...
- AMAIA.**— Eta ondo zaindu, e?, zu aguantatzeko ez _____ edonork balio eta.
- AMAIA.**— Eta... maite _____?
- JOSU.**— Bai. Bai, noski... nola ez?
- AMAIA.**— Bai ala ez?
- JOSU.**— Bueno, badakizu, aspaldi ez _____ ikusi eta sorpresa izan _____ Lidez hitz egitea, ez nuen espero.
- AMAIA.**— Dena ondo joatea opa _____ merezi _____.




  [Komentatu zure erantzunak lagun batekin.](#)

2.3 Zein da Amaiaren jarrera?

Ikusi berriro bideoaren bigarren zatia eta esan zein den Amaiaren jarrera.

- a.- Ez zaio batere axola Josu eta Lideren arteko harremana. Kortesiagatik bakarrik galdetu dio Josuri Liderekin jarraitzen duen ala ez.
- b.- Haserre dago Josurekin, uste du ez dela erraza aguantatzea eta Lidek laster utziko duela.
- c.- Sorpresa izan da Amaiaentzat Josu eta Lide elkarrekin daudela jakitea. Hala ere, onena opa dio Josuri.



Komentatu zure aukera lagun batekin.

3. IKUSI ONDOREN

3.1 Asmatu al duzu sekretua?

Sekuentziaren lehen ariketan proposatu dizugu zer gertatuko den asmatzea. Zuk pentsatutakoa bete da? Zure lagunak asmatu du? Komentatu, labur-labur, ahoz, bion artean.

3.2 Jarri arreta hizkuntzan


Konturatuko zinenez, Josu eta Amaiaren arteko elkarrizketan Amaiak dena ondo joatea opa dio Josuri. Gogoratu:

AMAIA.— Dena ondo joatea opa dizut, merezi duzu.

JOSU.— Mila esker.

Norbaiti gauza onak opa izateko, honelako esaldiak erabiltzen ditugu euskaraz:

- Dena ondo joatea opa dizut. / *Te deseo que todo te vaya bien.*
- Zoriontsu izatea opa dizut. / *Te deseo que seas feliz*
- Laster lana lortzea opa dizut. / *Te deseo que encuentres trabajo pronto.*
- Onena opa dizut. / *Te deseo lo mejor*



3.3. Esaldiak osatu

Esaldiak osatu, adibidean bezala. *Adibidea: Azkar sendatu! => Azkar sendatzea opa dizut*

- 1.- Ondo pasa! => _____
- 2.- Zorte on! => _____
- 3.- Egun zoriontsua! => _____
- 4.- Ongi ibili! => _____
- 5.- Azterketa gaititu! => _____

Idatzi dituzun erantzunak lagun batekin konparatu.